



GOIZ EGUZKI

Ezohiko batzarra, hilaren 12an

Ezohiko Batzarra deitu du Goiz Eguzki jubilatuen elkarteak hurrengo astearterako, hilaren 12rako. Arratsaldeko 16:00etan hasita izango da, eta egoitzaren atezaintzaren egoera izango da aztergai. ||

ZOKKETA

Oparitutako palek badute jabea!

Margotutako bi pala zozketatu dituzte Apuntapalak eta Kronikak; Dobera-Kronikako bazkideen artean bat, eta Kronikaren irakurleen artean bestea. Eta dagoeneko badakigu zein diren opari berezia jasoko dutenak: Idurre Lekuona eta Rosa Perez Charro. Zorionak bioi! ||

HERNANIKO SARE

Parisera autobusa, gaueko 11etan

Azken orduko aldaketa izan da, Parisera bidean Hernanitik aterako diren autobusetan. Gaueko 23:00etan aterako dira Atsegindegitik, eta ez 22:00etan. ||

GAZTELEKUA

Lokalaren dekorazioa, gaur

Atzoko jaieguna aprobetxatuz Tabakalerara bisita egin ostean, lokala Gabonetarako dekoratu eta etxerako apaingarriak egiteko zita jarri du gaur, Hernaniko Gaztelekuak; 17:00etan hasi eta 20:00ak arte. Hori izango da aste honetako azkeneko ekintza, Gaztelekuak asteartera arte itxiko baititu ateak, ostiraleko jaieguna aprobetxatuz. ||

KALE SORKUNTZA

Eskaerak, gaur arte

Hernaniko artista plastikoei sorkuntza prozesuetan laguntzeko, dirulaguntza deialdia zabaldu du Udalak, eta gaur arte izango da aukera eskaerak egiteko. Honekin, areagotu nahi dute arte plastikoen presentzia herriko kaleetan. Oinarriak eta eskaera-orriak, www.hernani.eus webgunean, edota Herriarren Harrera Zerbitzuan (HHZ). ||

BERDINTASUN SAILA

Haurdunaldi subrogatuari buruz, bi saio

Hurrengo astean izango da aurreneko saioa, hilaren 13an; bigarrena, aldiz, hilaren 20an izango da. Arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara eskainiko da, Biterin. Aurretik izena ematea beharrezkoa da.

HAURDUNALDI subrogatuaren gaia pil polean dabil azkeneko urteetan; eta horregatik, gaiari helduko dio Berdintasun Sailak, Jabetze Eskolen neguko programaren barruan. Horretarako, bi saio antolatu dituzte, datozen hilaren 13an eta 20an egingo direnak.

Izenematea telefonoz egin daiteke, 943 33 70 17 zenbakian.

Itziar Alkorta eta Maite Asensioen eskutik landuko da

gaia, bi egunetan zehar, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara bitarte, Biterin.

Izenematea, Berdintasun Sailean

Nahiz eta saioa debaldekoa izan, aurretik izena eman behar da, Berdintasun Sailean.

Telefonoz egin daiteke izenematea, 943 33 70 17 zenbakian.

Helburua, bikoitza

Saio hauen helburua bikoitza da: fenomeno honetara gerturatzea, bata; eta bestea, emakumeen arteko hausnarketa feminista sustatzea. ||

DURANGOKO AZOKA



Doberaren eta Aztarnaren standak atzo, Durangoko Azokaren aurreneko egunean. Argazkiak: Dobera eta Aztarna.

Beste bi eskaintza ere, Hernanitik Durangora

Hernanin egoitza duen Aztarna argitaletxeak ere jarri zuen postua atzo Durangoko Azokan. Urko Apaolaza kazetari hernaniarraren 'Zuloan' bere argitalpen berria eskuratu ahal izango da, aurrenekoz.

ATZO ireki zituen ateak Durangoko Azokak, euskal liburu eta disken azokak, alegia. Bertan, Dobera Euskara Elkar-teak eta Hernani Errotzenek bere tartetxoa izango zutela jakinarazi zuen atzo Kronikak, baina ez dira hernaniar bakar-rak izango. Izan ere, postua jarri du, baita ere, Hernanin egoitza duen Aztarna Argi-

taletxeak, eta bertan eskuratu ahal izango da aurrenekoz, baita ere, Urko Apaolaza kazetari hernaniarraren liburu berria: *Zuloan*.

Diska berria, Aztarnak

Atzo inauguratutako azokako stand gehienen antzera, diska berriarekin joan da Aztarna argitaletxera Landako gunera.

Alboka taldearen lan berria da, hain zuzen, *Lurra*, *Ur*, *Haize* izenburupean ekoiztutakoa. Alan Griffinen eta Joxan Goikoetxearen gidaritzapean, 17 kantu berriekin osatutako diska da, gonbidatu bereziekin egin dutena: Gatibuko Alex Sardui, Petti, Ken Zazpiko Eñaut Eloorrieta, Mikel Urdangarin, Amets Arzallus...

AHTaren inguruan, Apaolaza

Urko Apaolazak, aldiz, kazetaritza lan osatua aurkeztu du *Zuloan* argitalpenean. Bertan jasotzen du, «AHT eta lan-esplotazioan barrena egindako bidaiaren kronika». Urtebeteko kazetaritza-lana da, eta eskuratu nahi duenak, Argiaren standean aurkituko du, Barrenkale 1-2-3 zenbakietan. ||

Funeraria VASCONGADA
Zure eskura
24h-ko zerbitzua
943 376 980
Orkolaga, 2-4
943 55 79 01
HERNANI
www.funerariavascongada.com

OINDI
Asteleheneetik ostiralera
08:00etatik aurrera irekita
taberna
NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509

biokbi optika
Alejandra Nicolbar
Optiko Optometrista,
12.244 zib.
Antziola, 14
Tel.: 943 33 68 86

ESKAINITZA %20a Beherapena MONTURA GUZTIETAN

ZATUZ ETA AUKERA EZAZU GUSTUKOERA
AZAROAREN 19tik ABENDUAREN 15era
Kristal antireflejantetan betairteko osoa eginez
*Promozio hau ezin izan da gehitu. Berriak txartelaren deskontuaz.

☎ TAXIAK: 943 550093 | UDALZAINGOA: 943 248900 | DYA: 943 464622 | AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 | ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 | JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
✚ / Egunez: A. Etxebarria Andre kalea, 48 (Hernani) 943 551793 / Gaeuz: Etxebeste Elkano, 9 (Hernani) 943 552087

EGURALDIA
GAUR Lainotuagoa egongo da eguna gaur. Gainera, haizeak indarra hartuko du, eta momentu batzuetan desatsegina izango da. Euri pixka bat egin dezake. Min.3° / Max.12°
BIHAR Giro bustia izango da bihar, fronte baten eraginez. Indamarekin sartuko da haizea, eta ondorioz, tenperaturak behera egingo du. Min.6° / Max.10° (euskaime)

ORONA PRENTSA-OHARRA

Eskoziako eraikinik onenaren mugikortasuna, Oronaren esku

Carnegie Library & Galleries eraikina da sariduna, eta Hernaniko Orona da haren mugikortasun-hornitzailea; hiru makina desberdin instalatu ditu.

CARNEGIE Library & Galleries eraikina aukeratu berri dute Eskoziako eraikinik onena, arkitekturari dagokionean. Proiektu horretan hain zuzen, lagundu du Orona enpresa hernaniarrak, bere filialaren bidez bertan instalatu baititu hiru gailu: «zehazki, konpainiaren britainiar dibisioak Orona 3G 2018 igogailu bat instalatu zuen, 33 pertsonako edukiera duena; Orona 3G 2015 modelo bat, 13 bidaiari eraman ditzakeena; eta Orona C2000 plataforma jasotzaile bat», azaldu du konpainiak prentsa-ohar bidez.

Diotenez, Eskoziako Dunfermline hirian kokatuta da-

«Oronaren zerbitzuak erabili zituen, diseinu erakargarri bat lortzeko igogailuetan»

goen erakina, duela hilabete batzuk besterik ez zuten ireki, hiru urteko obra-lana burutu ondoren. Lan hori Richard Murphy Architects estudioak egin zuen, eta beraiei esker hartu zuen parte Oronak proiektuan: «Oronaren zerbitzuak erabili zituen igogailuetan diseinu erakargarri bat lortzeko, liburutegiaren estilo modernora egokitua; eta, aldi berean, iraunkortasun-bete-

beharrak betetzeko».

Finalera, beste hamabi proiektuekin

Azaldu dutenez, Carnegie Library & Galleries eraikina, beste hamabi proiektuekin pasa zen finalera; horien artean zegoen, adibidez, City of Glasgow Collegeko kanpusa.

Pozgarria, Oronarentzat

Pozik hartu du berria Oronak; izan ere, «balio arkitektoniko haundiko proiektuetan parte hartzea eta bere eskaintzaren bidez obra bakoitzaren helburu eta ezaugarrietara egokitzen diren askotariko soluzioak ematea» da helburua. ||

KAXKO ELKARTEA



Zinkoeneakoa izan da txukundutako lorategietako bat.

Lorategiak kolore bizia, berriro ere, Kaxkoko kaleetan

Kaxkoko kaleei bizitasuna eta kolorea ematea izan da Kaxko Elkartearen azkeneko helburuetako bat. Horrela bada, bertan dauden lorategiak hobetzeko lanak egin dituzte. Pixkanaka pixkanaka egin dute lana, eta dagoeneko, txukundu dituzte Kaxkoan zehar dauden lorategi gehienak. Garbitu, lore berriak landatu eta beste itxura berri bat eman diote inguruari. ||

UDALBILTZA

Udalbiltzako asmoak, Urkulluri

Udalbiltzaren lan ardatzen berri eman zioten herenegun Luis Intxauspe elkarteak lehendakariak, eta Haizea Isasa eta Oihan Mendo kideek Eusko Jaurilaritzari; hain zuzen ere, Iñigo Urkullu lehendakariari eta Josu Erkoreka kontseilariari. Bukaeran, Intxauspek harrera ona eskertu zuen: «administrazioen arteko elkarlana sendotu behar da», adierazi zuen. ||



Gasteizen elkartu ziren atzo Udalbiltza eta Eusko Jaurilaritza.

HERNANI ERROTZEN

‘Ezagutu Hernani’, hirugarrenez

Abenduaren 15era arte izango dute aukera herritarrek, lehiaketan parte hartzeko: Kronikan, Biterin, Rioja Tabernan eta Urbieta Kopiak.

AURTEN ere, Ezagutu Hernani lehiaketa jarri du martxan Hernani Errotzenek, gaur hasi eta abenduaren 15era arte.

Zehazki, hiru galdera planteatu dituzte, eta zuzen asmatzen dituztenen artean, Donostia 1813 dokumentalaren DVDaren 100 ale banatuko dituzte, abenduaren 16an jarriko duten zitan.

Parte hartzeko, nahikoa da albiste honen azpiko fitxa bete, moztu, eta toki hauetan dauden kutxetako batean uztea: Rioja taberna, Urbieta Kopia, Biteri eta Kronika.

Horrez gain, emailaz ere erantzun daitezke galderak, herriaerrotzen@gmail.com helbidearen bidez.

Ez egin iruzkinik albistean, bestela gainontzekoek ere ikusiko dituzte erantzunak!

Hiru galdera: asmatuko?

Hauexek dira, erantzun beharreko hiru galderak:

- 1.- Nortzuk jaurti zuten Udaletxea suntsitu zuen kanoikada? Karlistek ala liberalek?
- 2.- Zer da Oriamendi?
 - a) Mendi bat.
 - b) Kanta edo ereserki bat.
 - c) Oria ibaiaren itsasoratzea.
- 3.- Hernaniko zein kaleko zein etxeri esaten zaio Victor Hugo idazlearen etxea? ||

Ezagutu Hernani lehiaketa

Izen-abizenak

Telefonoa E-maila

ERANTZUNAK 1. 2. 3.

ERREMONTA

Barrenetxea IV gaur, luxuzko estelarrean

Larunbatean ekingo diote erremonteko Binakako Txapelketako finalerdiei, eta bide horretan, partidu berezia izango da gaur. Luxuzko estelarrak gozatzeko aukera izango dute arratsaldeko 16:00etatik aurrera Galarretara gerturatzen diren zaleek: Urriza eta Ion, Uterga eta Barrenetxea IVgarrenaren kontra. ||

KONTRAKANTXA

Muralak pintatzeko, proposamen bila

Kontrakantxa gaztetxeak jakinarazi du gaztetxean hutsak dauden paretetan mural berriak egin nahi dituztela, eta proposamenak biltzen ari direla horretarako. Ideiaren bat eman nahi duenak bi aukera ditu: Kontrakantxaren Facebook orrialdean mezu bat uztea, edo gaur (eta ostegunero) egiten duten bilerara azaltzea; gaztetxean izaten da, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. ||

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak 4 lanpostu salmenta-puntuko komertzial lanerako. Eskatzen da gaztelania eta euskara edukitzea eta eskaintzen da formazio sendoa eta lan-talde egonkorra. Bidali c.v. rrhh@logikaline.com helbidera.

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)